



Pasa den ostegunean, hilak 17, Sindikatuak Erkoreka sailburuarekin, Ana Agirre sailburuordearekin eta Jon Uriarte Zuzendariarekin bilgu ginen.

Eztabaidatu genituen garrantzitsuenak hauek dira:

#### • **ERREGISTRO ZIBILA**

Hasieran, Josu Erkorekak 2011ko legea gai honekiko eskumen exekutiboa dituzten autonomia erkidegoei besterik ez zegokiela ziurtatu zuen eta lege horrekin EAEk ezin zuela ezer egin ikusarazi nahi zuen. LABek gogoratu zion estatu mailan ezarri nahi zituzten aldaketei begira egin zela 2011ko legea; hau da, Erregistro Zibil (EZ) eredu bat eta bakarra, ez bere Estatutoetan gai honekiko eskumen exekutiboa dituzten autonomia erkidego bakan batzuei begira soilik. Igarotako denboraldian gertatutakoek erakutsi digute PPko gobernuari –duen erabateko gehiengoa baliatuz- berdin zaiola AE-ek transferentziak dituzten ala ez.

Eusko Legebiltzarraren Proposamen Ez Legezkoaren aurretik (2011ko legearekin bat, legebiltzarkide gehienek agintzen zioten EJri EZren eskumen exekutiboa exijitzeko), LAB Erkorekarekin bildu zen. Oraingo bileran gogoratu genion ordukoan esan ziguna: lege horren bitartez EZren eskumena udalei eman nahi ziotela. Bilera hartan osteguneko bileran jorratu genituen gai guztiak aipatu genizkion saiburuari, eta baten bat gehiago ere. Osteguneko bilerara LAB nahiko eszeptiko joan zen: Sailburuak denbora nahikoa izan duelako bere posizioa argitzeko EZ eta beste gai batzuen inguruan (LEI dela-eta egindako deskontuak, euskara trebatzaileak...). Garai hartan, zuzendariak eman zigun erantzun bakarra: hark ezin zuen ziurtatu lanpostuak mantenduko zirela.

Ostegunean, Josu Erkorekak esan zigun Kataluinak Ministerioari kexa aurkeztu ziola: nahiz eta autonomia estatutuak EZren eskumen exekutiboak jasotzen dituen ez dizkietelako utziko gauzatzen. Gehiago esan zuen, azken lege aurreproiektuak AE guztiak berdintzen dituela, kompetentzia bakarra emanez: “biltegizainak” izatea; era berean, onartu zuen eskumena izateak ala ez berdin diola Gobernu Espainolari.

Edonola ere, behin baino gehiagotan esan zuen ezin zutela euren kabuz eskumena eurenganatu. LABek erantzun zion ez diegula eskatzen gerrara joateko, EZren eskuduntza betearazlea exijitzeko baizik, behar beste guztietan, konbentzimenduz eta eskura dituzten baliabide guztiekin.

Sailburuak berak adierazi zuen Madrilen asmoak mamitzeko astirik ez dagoela eta edozer gerta daitekeela. Ziurtzat eman zuen EZren inguruko eskumen betearazlea lortzeari ekingo diotela, Justizia Administrazioaren barnean eta idazkarien edo kudeatzaileen ardurapean.

Benetan ari zela egiaztatze aldera, LABek eskatu zion EZren inguruko agerpen publikoa egiteko: eskumenak eskatzen jarraitzeko eta gaur egungo plantila mantentzeko konpromisoa. Haren esanetan horixe zen hasieratik asmoa.

LABek behin eta berriz azpimarratu zuen LANPOSTUAK FUNTZIO ETA ZEREGINEKIN UZTARTU BEHAR DIRELA; hots, BJBek eskatzen duen lan erreala eta beharrezkoarekin. EZ Justizia Administrazioaren ardurapeko zerbitzutat deusestatuko balute, horren ondoriozko lanpostuak birkokatzea ez litzateke zaila izango, ezarri gabe dagoen lekuetan BJB diseinatzerakoan. Dirudienez, Justizia Saila uste berekoa da. Abagunea suertatzekotan, birkokapen hori nola egikaritu negoziatu beharko da.

Justizia Sailak uste du, Erregistro Zibilaren inguruko azken nobedadeak aintzat eta Justizia Ministerioak eman dituen datak direla eta, gauza ugari gerta daitezkeela (hauteskundeak barne); horiek horrela, ez dute nahi ezertan ere aurreratu.

Esana zuenarekin bat, hedabideen aurrean agertu zen Erkoreka (Ireki - EITB) eta Erregistro Zibilak zerbitzu publikoa, doakoa eta autonomia erkidegoak kudeatutakoa izan behar duela esan. Horrekin batera, gaur egungo plantila (langile titularrak eta bitartekoak) mantentzeko konpromisoa hartu zuen, Bulego Judizial Berria ezartzearekin loturik.

## • LANGILE TITULARREN LEI DELA ETA DESKONTUAK

Gaixoaldiko 6. hilabetetik aurrerako deskontu ikaragarriekin eragiten ari diren bidegabekeriak jabetu dira. Osagarriak ordaintzea MUGEJUri dagokiola uste izaten segitu arren, Justizia Sailak erabaki omen du DESKONTURIK EZ DUELA EGINGO BAINA AZKEN HITZA FUNTZIO PUBLIKOAK duela esan zuen. Sailburuordearen hitzetan, hurrengo bilera batean ebatziko da kontu hau behin betiko.

Honaino heldurik LABek gogora ekarri zuen Erkorekari aurrekoan kontatu zion kasua: kimioterapia aldi betean langile batek lanera itzuli behar izan zuen, sailak 900 bat euroko, ez gehiagoko, nominarekin utzi baitzuen. Berriz ere esan genien: Eusko Jaurlaritzaren obligazioa da haien langileak babestea; osagarriak ordaintzea MUGEJUri dagokiola uste badu jo dezala auzibidera. Onartezina baita langileak babesgabetasun gorrienera behartzea.

Orain arteko deskontuak itzuli behar dituzten galdetuta ez genuen erantzunik jaso. Une hori aprobetxatu zuen Ana Agirrek adierazteko haien langileak garela eta inoiz ez dutela asmorik izan lanpostu bakar bat ere kentzeko.

## • TREBATZAILEAK

LABek itaundurik, Justizia Sailburuak esan zuen gaurko egoera hobetzen dabiltzala bi teknikari kontratatu dituzte eta (2011n, aurreko gobernuak 14 kaleratu zituen). Justizia Administrazioan euskara erabiltzearen aldeko hitzaldian abokatu euskaldunek adierazitako haserrea jakinarazi ere egin genien.

## LABen BALORAZIOA

Bilera adeitsua izan zen, giro lasaian eramana eta sailburuak eztabaidatzeko borondate ona erakutsi zuen.

LABi dagokionez, harremanak horrelakoxeak izan daitezzen ahalalegindu gara eta ahaleginduko horrek hala segi dezan. Ea uzten ditugun atzean sail honekin orain arte jasan behar izan ditugun tentsioak eta ezin konpontzeak.

LABek esan zion Erkorekari lanpostu guztiak mantentzea ez ezik, zerbitzu publikoa eta dohakoa bermatzea eta gure historiarentzat ezinbestekoa den dokumentu-ondasuna babestea ere badela jokoan dagoena.

Bileran izandako giro egokia gorabehera, zuhurtziaz jokatu behar dugu; pribatizazioa burutuko balute ikusiko genuke Erkoreka hitzari eustekoa den. Hedabideen aurrean egindako agerpena alderdi sindikalak bultzaturiko elkarrizketen eta mugimenduen emaitza da eta garaipentzat har dezakegu.

Erregistro Zibila Justizia Administrazioaren barruan geratzeak, egungo plantila zaintzeaz gain, enplegu publikoa ugarituko luke, BJB ezartzeak eskatzen dituen beharrianak aintzat harturik. Eta alde guztien artean lortuko bagenu gizartea konbentzitzea eta inplikitzea Erregistro Zibila zerbitzu publiko eta doakotzat aldezteko, beste bataila bat irabazia izango genuke.